

**BERDINTASUNAREN ALDEKO  
EMAKUMEEN DONOSTIAKO  
KONTSEILUAREN ARAUDIA**

**REGLAMENTO DEL CONSEJO DE  
LAS MUJERES  
DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN  
PARA LA IGUALDAD**

**ARRAZOIEN AZALPENA**

Azken urteotan, emakume-taldeen eta talde feministen lanari esker, gure hirian emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aurrerapen garrantzitsuak eman dira. Eusko Legebiltzarrean onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legeak lehenik, eta Espainiako Diputatuen Kongresuko 3/2007 Legeak ondoren, administrazioan nahiz beste arloetan, publiko nahiz pribatuetan, aukera-berdintasunaren printzipioa aplikatzeko legezko oinarriak finkatu dituzte. Hala ere, emakumeen eta gizonen arteko erabateko aukera-berdintasuna lortzeko bidean asko dago egiteko oraindik eta behar-beharrezkoa da bide horretan gizarte osoak parte hartzea.

Berdintasun-kontseiluak herritarren, eta bereziki emakumeen, parte-hartze organoak dira eta aipatu legetan onartuta daude; berdintasunaren alde lanean diharduten elkarte, talde edo erakundeek agenda politikoak aurkeztu, ahalduntzearen eta gidaritzaren bidean pausuak eman, taldeen arteko aliantzak ezarri eta toki-administrazioarekin harreman zuzena izateko espazioak dira. Donostiako Udalak, 2006ko abenduan, Gobernu Batzordean onartutako Herritarren Partaidetzarako Plan Zuzentzailearen markoaren barnean, bertako bizitzaren kudeaketan herritarren parte-hartze zuzenaren garrantzia

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

En los últimos años, y gracias al esfuerzo de los grupos feministas y de mujeres, se han realizado importantes avances en materia de igualdad de mujeres y hombres en nuestra ciudad. La aprobación de la Ley 4/2005 de Igualdad de Mujeres y Hombres en el Parlamento Vasco primero, y la de la Ley 3/2007 en el Congreso de los Diputados después, han sentado las bases legales para la aplicación del principio de igualdad de oportunidades en la administración y en otros ámbitos, tanto públicos como privados. Sin embargo, aún es mucho lo que queda por hacer para la consecución de la plena igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, y en ese camino es necesaria la implicación del conjunto de la sociedad.

Los consejos de igualdad son órganos de participación ciudadana, y, en especial, de las mujeres, reconocidos por las citadas leyes; espacios donde las asociaciones, grupos u organizaciones que trabajan a favor de la igualdad pueden plantear sus agendas políticas, dar pasos hacia el empoderamiento y el liderazgo, establecer alianzas entre distintos grupos, y tener una interlocución directa con la administración local. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, en el marco del Plan Director de Participación Ciudadana aprobado por la Junta de Gobierno en diciembre de 2006, viene insistiendo en la importancia de la participación directa de la ciudadanía en la gestión de la vida local.

Las distintas asociaciones y organizaciones

nabarmendu du. Emakume-elkarte edo –erakundeek, feministek edo berdintasunaren alde lanean dihardutenek, tokiko politikan esku hartzeko nahia eta erabakia azaldu dute, eta horretan hasi dira jada, araudi hau osatzeko parte-hartzeak erakutsi duenez. Horrela, Donostiako Emakumeen Kontseilua, administrazio publikoak eta gizarte-eragileek elkarrekin pentsatu eta sortutako aukera-berdintasunaren aldeko tokiko politika eraginkor eta zeharkakoak sustatzeko tresna baliotsua da.

## **ATARIKO TITULUA**

### **1. ARTIKULUA. IZAERA.**

1.- Berdintasunaren aldeko Emakumeen Donostiako Kontseilua kontsultarako eta informaziorako parte-hartze organoa da eta bere helburua hiriko bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialeko arlo ezberdinetan, emakumeen eta gizonen tratua eta aukera-berdintasunaren printzipioaren garapen eta sustapenean, hiriko emakumeen parte-hartze demokratikoa bermatzea da.

2.- Kontseilua arautuko dute, honako araudi honek, Donostiako Udaletxeo Herritarren Partaidetzarako arau organikoak eta aplikatu daitezkeen gainerako beste xedapenek, Herritarren Partaidetzarako Plan Zuzentzailean hitzartutakoa ere kontuan hartuz.

3.- Berdintasunaren aldeko Emakumeen Donostiako Kontseilua emakumeek osatutako organoa da, baina, noizean behin gizonen bat gonbida dezake, aztertu beharreko gairen batean aditua delako edo bere iritzia jaso nahi delako.

4.- Kontseiluak funtzio-autonomia izango du Udalbatzari dagokionez. Halaber,

de mujeres, feministas, o que trabajan por la igualdad, también han manifestado su deseo y determinación de incidir en la política local, y de hecho ya han comenzado a hacerlo, como queda de manifiesto en la redacción participativa de este reglamento. Así, el Consejo de las Mujeres de Donostia-San Sebastián para la Igualdad es un valioso instrumento para el impulso de políticas locales de igualdad de oportunidades eficaces y transversales, ideadas y compartidas por la administración pública y los agentes sociales.

## **TÍTULO PRELIMINAR**

### **ARTÍCULO 1.- NATURALEZA.**

1.- El Consejo de las Mujeres de Donostia-San Sebastián para la Igualdad constituye un órgano de participación de carácter consultivo e informativo que tiene como objetivo garantizar la participación democrática de las mujeres de la ciudad en el desarrollo e impulso del principio de igualdad de oportunidades y trato de mujeres y hombres en los diferentes ámbitos de la vida política, cultural, económica y social del municipio.

2.- El Consejo se regirá por el presente Reglamento, por la Norma Orgánica de Participación Ciudadana del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián y por las demás disposiciones que resulten de aplicación, debiendo asimismo tener en cuenta lo estipulado en el Plan Director de Participación Ciudadana.

3.- El Consejo de las Mujeres de Donostia-San Sebastián para la Igualdad es un órgano formado por mujeres, sin perjuicio de que de manera ocasional se pueda cursar alguna invitación a hombres que sean expertos en un tema concreto objeto de estudio o cuya opinión se quiera consultar.

4.- El Consejo gozará de autonomía funcional con respecto a la Corporación

berdintasun-politiken inguruko helburu eta proposamenak helarazteko toki bihurtzeko legitimitatea eta lidergoa aitortzen zaio. Era berean, udalerakundeen jarduera edo ildo orokorrak zuzentzeko baliogarri izan daitezkeen irizpide eta gomendioak ere igor ditzake.

5.- Kontseiluan, ordezkari izan eta bertako Osoko bilkuretara eta Batzordeetara bertaratzen direnek, beren funtzioak betetzeagatik ez dute ordainsaririk izango.

## 2. ARTIKULUA. KONTSEILUAREN HELBURUAK.

Berdintasunaren aldeko Emakumeen Donostiako Kontseiluaren oinarritzko helburuak honako hauek dira:

- 2.1. Emakumeen partaidetzaren alde egingo duen espazioa eskaini, zuzenean nahiz ordezkari duten elkarte edo erakunde bitartez, berdintasunaren inguruko udal-politiketan erabakiak hartzeko prozesuan, beren parte-hartze aktiboa bermatuz.
- 2.2. Emakumeen posizio soziala indartu, berdintasunezko gizartearen eraketan beren protagonismoa irmotuz.
- 2.3. Emakumeen mugimenduaren aintzatespena lortzen lagundu, beren eskubideak defendatu eta jarduera eta bizitza-esparru ezberdinetan beren partaidetza eraginkorra sustatu.
- 2.4. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko politika publikoen sustapenean emakumeen partaidetza eta esku-hartze gaitasuna bultzatu.

municipal. Se le reconoce, asimismo, la legitimidad y el liderazgo suficiente para que se convierta en un espacio al que hacer llegar aspiraciones y propuestas sobre las políticas de igualdad, y que pueda emitir dictámenes y recomendaciones a las diferentes entidades municipales que sirvan para orientar las líneas o directrices generales en materia de su competencia.

5.- Las personas con representación en el Consejo que asistan a las reuniones del Pleno del mismo así como a las Comisiones de éste, no tendrán derecho a remuneración por el ejercicio de sus funciones.

## ARTÍCULO 2.- FINES DEL CONSEJO.

Son fines esenciales del Consejo de las Mujeres de Donostia-San Sebastián para la Igualdad los siguientes:

- 2.1. Ofrecer un espacio para favorecer la participación de las mujeres, tanto directamente como a través de las asociaciones y entidades que las representen, garantizando la participación activa de éstas en el proceso de toma de decisiones de las políticas municipales relativas a la igualdad.
- 2.2. Fortalecer la posición social de las mujeres, reforzando el protagonismo de las mismas en el diseño de una sociedad más igualitaria.
- 2.3. Contribuir al reconocimiento del movimiento de mujeres, defender los derechos de éstas y promover su efectiva participación en los diferentes ámbitos de actividad y espacios de vida.
- 2.4. Fomentar la participación de las mujeres y su capacidad de intervención en la promoción de las políticas públicas relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres.

- |  |   |
|--|---|
| <p>2.5. Emakumeen eta gizonen tratua eta aukera- berdintasunerako sustapen-jarduerak burutzen dituzten elkarte eta beste erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarlana bultzatu.</p> <p>2.6. Donostiako Udalarekin baliozko hizketakide izan eta kontsultarako diren beste organoekiko lehentasuna izan bere eskumeneko gaietan, zuzenean nahiz berdintasun-politikan eskumenak dituen Udal Sailaren bidez.</p> <p>2.7. Udal-politikak eta -zerbitzuek emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatzen dutela ziurtatzeaz arduratu.</p> <p>2.8. Jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazionala, etnia, hizkuntza, ezintasuna, erlijioa, adina, sexu aldaketa, joera sexuala, iritzi politikoa, lanbidea, ondasuak edo beste edozein arrazoi dela medio, babesgabetasun bereziko egoera pairatzen duten emakume guztiei tratua eta aukera-berdintasuna aplikatzen zaiela eta benetakoa dela ziurtatzeaz arduratu.</p> | <p>2.5. Fomentar la cooperación y colaboración entre las asociaciones y demás entidades que lleven a cabo actividades de promoción de la igualdad de oportunidades y trato de mujeres y hombres.</p> <p>2.6. Ser interlocutor válido ante el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián y preferente al resto de los órganos consultivos del ámbito municipal en lo referente a los asuntos de su competencia, ya sea directamente, ya sea a través de la Sección municipal competente en políticas de igualdad.</p> <p>2.7. Velar por que las políticas y los servicios municipales garanticen la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres.</p> <p>2.8. Velar para que la igualdad de oportunidades y de trato sea efectiva y se aplique a todas las mujeres que sufren situación de especial vulnerabilidad o desamparo, sea por razón de su origen nacional o social, pertenencia a una minoría nacional, etnia, cultura, idioma, discapacidad, religión, edad, cambio o reasignación de sexo, lengua, orientación sexual, opinión política, ocupación, patrimonio o cualquier otro aspecto.</p> |
|--|---|

### 3. ARTIKULUA. FUNTZIOAK.

3.1.- Aurreko artikuluan zehaztutako xedeak lortzeko, Berdintasunaren aldeko Emakumeen Donostiako Kontseiluak ondorengo funtzioak garatuko ditu:

- Emakumeen eskubideak (politiko, zibil, sozial, ekonomiko eta kulturalak) defendatu eta zabaldu.
- Bere eskumeneko gaietarako, Donostiako emakumeen elkarte eta erakundeen eta Udaletxearen arteko elkarrikitasun-espazio gisa baliagarri izan. Horretarako, Berdintasun Sailak

### ARTÍCULO 3.- FUNCIONES.

3.1.- Para la consecución de los fines señalados en el artículo anterior, el Consejo de las Mujeres de Donostia-San Sebastián para la igualdad desarrollará las siguientes funciones:

- Defender y divulgar los derechos (políticos, civiles, sociales, económicos y culturales) de las mujeres.
- Servir como espacio de interlocución entre las diferentes asociaciones y entidades de mujeres de Donostia-San Sebastián y el Ayuntamiento en lo referente a los asuntos de su competencia.

berdintasun-politikaren inguruko Udalaren ekimenen berri eman beharko dio Kontseiluari eta, bere funtzioak gara daitezzen, dinamika ona bermatzeko beharrezkoak zaizkion tresna guztiak eskueran jarriko dizkio.

Ondoren, ahal den heinean, arlo honetan Udalbatzak aurreikusitako jarduerak kontsultatzeko aukera eskainiko da, eztabaidatzeko eta ideia ezberdinak alderatzeko bideak eskainiz, azkenik, jokabide-proposamenak egin ahal izateko.

- Berdintasun-politiketan eskumena duen Udal Sailarekin lan egin, sail ezberdinetako berdintasun-plan eta -programen osaketa, aplikazio, ekintza-maila eta ebaluazioa zuzenduko dituzten lehentasunak eta irizpideak definitzerakoan; horien kalitateaz, eraginkortasunaz eta gardentasunaz arduratuz.

- Berdintasun-arloan helburuak bete daitezzen Administrazioari neurriak proposatu eta iradokizunak aurkeztu, ekimen propioz edo eskatzen zaienean, txosten, irizpen, proposamen eta eskaerak igorritz.

- Kurtso bakoitzaren hasieran, Kontseiluaren urteko jarduera-plana sustatu eta burutu, honen amaieran gauzatutako jarduera, erdietsitako akordioak eta horien garapenaren balorazioa biltzen duen memoria aurkeztuz.

- Sexuarekin edota generoarekin zerikusia duten diskriminazioen esparruko azterketak eta txostenak egitea bultzatu, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan Kontseiluan ordezkariarik ez duten beste elkarte, erakunde edo kolektiboetako ekimen, iradokizun, eskakizun eta eskaerak bideratzea ere.

- Esparru politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzea helburu duten emakumeen elkarte

Para ello, la Sección de Igualdad deberá informar de las acciones del Ayuntamiento en relación a las políticas de igualdad, y pondrá a disposición del Consejo todos los instrumentos necesarios para garantizar una buena dinámica para el desarrollo de sus funciones.

Posteriormente, en la medida de lo posible, se abrirá a consulta las actuaciones previstas por el Gobierno Municipal en este ámbito, facilitando el debate y el contraste de ideas para, por último, poder formular propuestas de actuación.

- Colaborar con el Departamento Municipal competente en políticas de Igualdad en la definición de prioridades y criterios que han de regir en la elaboración, aplicación, nivel de ejecución y evaluación de los planes y programas de igualdad de los diferentes departamentos; velando por la calidad, eficacia y transparencia de los mismos.

- Proponer medidas y formular sugerencias a la Administración para el cumplimiento de los objetivos en materia de igualdad, mediante la emisión de informes, dictámenes, propuestas y peticiones por iniciativa propia, o cuando les sea solicitada.

- Promover y elaborar un plan anual de actividades del Consejo al inicio de cada curso, presentando al final del mismo una memoria donde se recoja la evaluación de las acciones realizadas, los acuerdos alcanzados y las valoraciones de su desarrollo.

- Promover la realización de estudios e informes vinculados al ámbito de la discriminación por razón de sexo y/o género, así como canalizar las distintas iniciativas, sugerencias, demandas y peticiones, en relación con la igualdad de mujeres y hombres, provenientes de asociaciones, entidades o colectivos no representados en el Consejo

- Impulsar la comunicación, relación e intercambio entre las asociaciones de mujeres que tengan como fin la promoción de la igualdad de oportunidades de mujeres

arteko komunikazioa, harremana eta ekimen-trukea bultzatu.

- Genero-indarkeriaren aurka diharduten erakunde, elkarte eta organizazioekin elkarlana eta partaidetza sustatu, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera.

- Eskumena duten organoen aurrean, Kontseiluaren ezagutzapean jarri diren joera diskriminatzaileen salaketak bideratu, indarrean dagoen araudiaren baldintzapean.

- Kontseiluaren ekintza, jarduera, informazio eta dokumentu guztien inguruko aldizkako informazioa eskaini, era bizkor eta interaktiboan.

- Bere esku utzi diren emakumeen inguruko beste edozein funtzio.

3.2.- Funtzio horiek guztiak garatu ahal izateko, Berdintasun Sailak, bere aurrekontuan, Kontseiluak antolatutako jarduerak finantzatzeko diru-kopuru zehatz bat aurreikusi beharko du.

y hombres en el ámbito político, cultural, económico y social.

- Favorecer la colaboración y participación con entidades, asociaciones y organizaciones que actúan contra la violencia de género, atendiendo a los términos de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de medidas de protección integral contra la violencia de género.

- Canalizar ante los órganos competentes cuantas denuncias de conductas discriminatorias sean puestas en conocimiento del Consejo, en los términos planteados en la legislación vigente.

- Informar periódicamente de manera ágil e interactiva sobre todas las actuaciones, actividades, informaciones y documentos del Consejo.

- Cualesquiera otras funciones relacionadas con las mujeres que pudieran encomendársele.

3.2.- Para poder desarrollar estas funciones, la Sección de Igualdad deberá prever en su presupuesto una dotación anual destinada a financiar las actividades programadas por el Consejo.

## **I. TITULUA. KONTSEILUAREN OSAERA**

### **4. ARTIKULUA. KONTSEILUAREN OSAERA.**

4.1.- Berdintasunaren aldeko Emakumeen Donostiako Kontseiluko eskubide osoko kideak honako hauek izan daitezke:

a) Ondorengo baldintzak betetzen dituzten emakumeen elkarte edo erakundeak:

- Entitateen Udal Erroldan edo Elkarteen Udal Erroldan izena emanda dutenak.
- Emakumeen eskubideen ikuspegi eta defentsatik, berdintasunaren

## **TITULO I.- COMPOSICIÓN DEL CONSEJO**

### **ARTÍCULO 4.- COMPOSICIÓN DEL CONSEJO.**

4.1.- Podrán ser componentes de pleno derecho del Consejo de las Mujeres de Donostia-San Sebastián para la Igualdad:

a) Las asociaciones u organizaciones de mujeres que reúnan las siguientes condiciones:

- Estar inscritas en el Registro Municipal de Entidades ciudadanas o en el Registro Municipal de Asociaciones.
- Acreditar el desarrollo de actividades de promoción de la igualdad, desde la

sustapen-jarduerak garatzen dituztela frogatu dutenak, jarduera-memoria baten bitartez.

- Irabazi-asmorik gabeko elkarteak.
- b) Estatutu bidez edo gobernu-organoekin adostutako funtzio-autonomia duten beste elkarte edo erakundeen emakume-sailak, bereziki bere eskumeneko gaietan besteen aurrean ordezkari-organoa propioa dutenak. Sail horiek, jarduera-memoria baten bidez, emakumeen eskubideen defentsan burututako lana frogatu beharko dute.
- c) Berdintasunaren esparruan ekintza eta programak burutu eta Donostian ordezkari-organoa duten sindikatu-entitateen emakumeen sail eta idazkaritzak, beren jarduera memoria baten bidez frogatuta.

d) Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna erdiestearekin zuzenean erlazio-entitateen helburu edota jarduerak dituzten elkarteak, baldin eta jarduera-memoria aurkeztu eta kontseiluko ordezkaria emakumea bada.

e) interesatuta egonik, dagokion arloko erroldan izena emanda dauden pertsonen zerrendatik zozketaz aukeratutako pertsona fisikoak.

f) Alkatetza, Arloko ordezkaria den pertsona titularra eta Udalean ordezkari-organoa duen udal talde bakoitzeko zinegotzi bat (emakume edo gizona), edo eginkizun horretarako eskuordetu duten pertsona, ahal bada emakumea, ere Kontseiluko kide izango dira.

4.2.- Elkarte, entitate, alderdi politiko eta sindikatu-entitate Kontseiluko Idazkaritzan hautatutako pertsonaren izena eman eta frogatu beharko dute, eta titular bakoitzaren ordezkaria ere izendatu ahal izango dute. Alderdi politiko-entitate ordezkari-organoa ezingo da bikoiztu, udal korporazioko kide izateagatik hauek jada ordezkari bat badute.

perspectiva y defensa de los derechos de las mujeres, a través de una memoria de actividades.

- No perseguir fines lucrativos.
- b) Las secciones de mujeres del resto de asociaciones u organizaciones que tengan reconocida estatutariamente o por acuerdo de sus órganos de gobierno autonomía funcional, con órganos propios de representación ante terceros en temas de su específica competencia. Estas secciones tendrán que acreditar a través de una memoria de actividades, su trabajo en defensa de los derechos de las mujeres.
- c) Las secciones o secretarías de mujeres de los sindicatos con representación en Donostia-San Sebastián que realicen actuaciones y programas en materia de igualdad, acreditadas en una memoria de actividades.

d) Las asociaciones cuyo principal objetivo y/o actividad esté relacionado de manera directa con trabajar por alcanzar la igualdad real de mujeres y hombres, siempre que acrediten una memoria de actividades a tal efecto y su representación en el consejo sea a través de una mujer.

e) Personas físicas elegidas por sorteo entre las que formen parte de las listas de personas interesadas e inscritas en el censo del área correspondiente.

f) Formarán también parte del Consejo la Alcaldía, la persona titular de la delegación del Área y una concejala o concejal de cada grupo municipal con representación en el Ayuntamiento, o personas en quienes estas o estos deleguen, procurando que sea una mujer quien se integre en el Consejo.

4.2.- Las asociaciones, entidades, partidos políticos y sindicatos deberán nombrar y acreditar ante la Secretaría del Consejo el nombre de la persona designada, pudiendo asimismo designar una suplente por cada titular. No se podrá duplicar la representación de los partidos políticos, en el supuesto de que éstos ya cuenten con una representante por formar parte de la corporación municipal.

4.3.- Berdintasunaren aldeko Emakumeen Donostiako Kontseiluan, aholkulari gisa bertaratzen diren pertsona edo entitateek ere parte hartzeko aukera dute baina ezingo dute botorik eman. Horiek Kontseiluaren gehiengoak proposatu edo ekimen propioz parte hartu ahal izango dute, betiere Kontseiluak honela adostu badu.

4.3.- El Consejo de las Mujeres de Donostia-San Sebastián para la Igualdad podrá contar con la participación de personas o entidades que, en calidad de asesoras, acudan a las sesiones con voz pero sin voto. Éstas, podrán participar a propuesta de la mayoría del Consejo o por iniciativa propia, contando en este caso con el acuerdo del Consejo.

## **II. TITULUA. KONTSEILUAREN EGITURA, ESKUDUNTZAK ETA FUNTZIONAMENDUA**

## **TITULO II.- ESTRUCTURA, ATRIBUCIONES Y FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO**

### **5. ARTIKULUA. KONTSEILUAREN EGITURA.**

### **ARTÍCULO 5.- ESTRUCTURA DEL CONSEJO.**

Berdintasunaren aldeko Emakumeen Donostiako Kontseiluak ondorengo egitura hau izango du:

El Consejo de Mujeres de Donostia-San Sebastián para la Igualdad contará con la siguiente estructura:

- a) Osoko bilkura.
- b) Lehendakaritza.
- c) Lehendakariordetza.
- d) Batzorde Iraunkorra
- e) Idazkaritza
- f) Lan-batzordeak

- a) El Pleno.
- f) La Presidencia.
- g) La Vicepresidencia.
- h) La Comisión Permanente
- i) La Secretaría
- f) Las Comisiones de trabajo

### **6. ARTIKULUA. OSOKO BILKURA.**

### **ARTÍCULO 6.- EL PLENO.**

Osoko bilkura Kontseiluko organo gorena da eta ondorengoek osatzen dute:

El Pleno es el órgano supremo del Consejo y estará constituido por:

- Lehendakaritza.
- Lehendakariordetza.
- Idazkaritza.
- Elkarte edo erakunde bakoitzeko ordezkari bat, hauetako bakoitzaren Estatutuak zehaztutako prozeduren arabera hautatuak eta Kontseilu Idazkaritzan onartua. Kontseilua osatzen duten beste bi pertsonak ere bertaratzeko aukera izango dute.
- Udaleko talde politiko bakoitzeko zinegotzi edo ordezkari bat

- La Presidencia.
- La Vicepresidencia
- La Secretaría.
- Una persona representante de cada una de las asociaciones y entidades, con posibilidad de que asistan otras dos personas más que integran el Consejo, elegida o nombrada al efecto según el procedimiento establecido en sus respectivos Estatutos y acreditada ante la Secretaria del Consejo.
- Una concejala o representante de cada grupo político municipal.

- (emakumea).
- Berdintasun Saileko teknikari bat (emakumea). Iritzia eman ahal izango du, baina ezingo du botorik eman.
- Beren baitan emakumearen talde/saila duten eta udal-esparruan diharduten sindikatu bakoitzeko ordezkari bat (emakumea).
- Dagokion arloko erroldan izena emandako eta interesdun pertsonen zerrendatik zozketaz aukeratutako pertsona fisikoak. Pertsona fisiko kopurua Kontseiluko Osoko bilkuraren kideen % 10aren baliokidea izango da.
- Una técnica de la Sección de Igualdad. Actuará con voz, pero sin voto.
- Una representante de cada una de los sindicatos con presencia en el ámbito municipal que tengan grupo/sección de mujer en su seno.
- Personas físicas elegidas por sorteo entre las que formen parte de las listas de personas interesadas e inscritas en el censo del área correspondiente. El número de personas físicas será equivalente al 10 % de las personas miembros del Pleno del Consejo.

## 7. ARTIKULUA. OSOKO BILKURAREN ESKUDUNTZAK.

Kontseiluko Osoko bilkuraren eskuduntzak ondorengoak dira:

- 1.- Kontseiluaren ildo estrategikoak zehaztu.
- 2.- Jardueren urteko plana eta honen memoria ebaluatu eta onartu, baita batzorde iraunkorraren eta lan-batzordeen kudeaketa ere.
- 3.- Batzorde iraunkorrak proposatutako Lan Batzordeen osaera onartu.
- 4.- Kontseiluan proposatutako berdintasun-politiken diseinua, ezarpen eta ebaluazioan parte hartzeko gaitzerrendan bildutako gaien inguruko beharrezko informazio eta dokumentazioa eskatu.
- 5.- Batzorde iraunkorraren eta Udala Administrazioaren onespina jaso behar duten berdintasun-politiken inguruko proposamen eta txosten ezberdinak aurkeztu, eztabaidatu eta horien inguruko iritzia eman.
- 6.- Toki administrazioaren barne edo kanpoko erakunderen batek eskatuta, honen lanaren inguruko txosten edo irizpenak igorri, baita proiektu, plan eta zerbitzuak, edo emakumeen interes eta

## ARTÍCULO 7.- ATRIBUCIONES DEL PLENO.

Son atribuciones del Pleno del Consejo las siguientes:

- 1.- Determinar las líneas estratégicas de actuación del Consejo.
- 2.- Evaluar y aprobar el plan anual de actividades y la correspondiente memoria así como la gestión de la comisión permanente y las comisiones de trabajo.
- 3.- Aprobar la creación de las Comisiones de Trabajo propuestas por la Comisión Permanente.
- 4.- Solicitar la información y documentación necesaria sobre los asuntos incluidos en el Orden del día para poder actuar en el diseño, implementación y evaluación de las políticas de igualdad propuestas en el Consejo.
- 5.- Plantear, debatir y pronunciarse sobre las diferentes propuestas e informes en relación a las políticas de igualdad que sean sometidos a aprobación por la Comisión Permanente y la Administración Municipal.
- 6.- Emitir, a solicitud o requerimiento de alguna institución interna o externa a la Administración Local, informes o dictámenes sobre cuestiones que le afecten, así como sobre proyectos, planes y servicios o

beharrekin bat datozen beste edonolako ekimenei loturikoak ere.

7.- Barne Araudia eta beste funtzionamendu-arauak onartu, iradokizun eta aldaketa egokiak proposatuz.

8.- Kontseiluan sartu behar diren elkarte edo kolektibo berriak onartu, baita jada bertan dauden batzuen irteera ere, Batzorde iraunkorrak aurretik proposatu eta barne-araudiak edo administrazioak erregulatutako beste arauak hala badiote.

9.- Kontseiluari dagokionez, espresuki beste organoen eskumenekoa ez den beste edozein eskuduntza.

## **8. ARTIKULUA. OSOKO BILKURAREN FUNTZIONAMENDUA.**

1.- Kontseiluko Osoko bilkura ohiko bileran elkartuko da, urtean lau aldiz gutxienez, Lehendakartzak deituta.

2.- Kontseiluan ohiz kanpoko bilkurak egingo dira Lehendakartzak zuzenean horrela erabakitzen duenean edo % 50a baino txikiagoa ez den erakunde-kopuru batek eskatzen badu.

3.- Kontseiluko Lehendakartzak deitutako ohiko bilkuren aurretik, Idazkaritzak behin-behineko gai-zerrenda igorriko du eta 10 eguneko epea ezarriko du Kontseiluko kideek gai-zerrendarako proposamenak luza ditzaten, edo honi dokumentazio edo ekarpenak egin diezazkioten.

4.- Ondoren, Lehendakartzak bilkurak deituko ditu. Deialdi horretan landu beharreko gaiak biltzen dituen zerrenda igorriko da, baita beharrezkoa den dokumentazioa eta puntu bakoitzean Kontseiluko kideek burututako ekarpenak ere.

cualquier otra actuación relacionada con las necesidades e intereses de las mujeres.

7.- Aprobar el Reglamento interno y demás normas de funcionamiento, así como proponer las oportunas sugerencias y modificaciones.

8.- Aprobar la incorporación de nuevas asociaciones o colectivos de mujeres al Consejo, así como la expulsión de alguna de las que están incorporadas, previa propuesta de la Comisión Permanente y en función del reglamento interno u otras normas reguladas por la administración.

9.- Cualesquiera otras que, correspondiendo al Consejo, no estén expresamente atribuidas a otros órganos.

## **ARTÍCULO 8.- FUNCIONAMIENTO DEL PLENO.**

1.- El Pleno del Consejo se reunirá en sesión ordinaria, al menos cuatro veces al año, a convocatoria de la Presidencia.

2.- El Pleno se reunirá con carácter extraordinario cuando así lo decida la Presidencia directamente o a petición de un número de asociaciones no inferior al 50 %.

3.- De forma previa a la convocatoria de las sesiones ordinarias por parte de la Presidencia del Consejo, la Secretaría remitirá una comunicación con un orden del día provisional, en la que se establecerá un plazo de 10 días naturales a fin de que las personas miembros del Consejo puedan hacer propuestas al orden del día, así como presentar documentación y aportaciones al mismo.

4.- Posteriormente, la Presidencia convocará las sesiones. En dicha convocatoria se remitirá el orden del día que recoja los asuntos a tratar, así como la documentación necesaria y cuantas aportaciones pudieran haber sido realizadas por personas miembros del Consejo en relación a dichos puntos.

5.- Ohiko bilkurak, ohiz kanpokoan modura, 15 egun lehenago deitu behar dira, premiazkoak ez badira, horien kasuan gutxienez 7 egun lehenago deitu beharko baitira.

6.- Kontseiluko bilkuretan elkarte edo entitate bakoitzeko ordezkariak eta, hala badagokio, bere ordezkariak soilik izango du bozkatzeko eskubidea.

7.- Osoko bilkurako akordioak gehiengo soiluz eta ohiko bozketaren bidez hartuko dira. Bozka baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, abstentzioa ere aukera bat izango delarik. Gehiengo soilak baiezko botoak ezezkoenak baino gehiago direnean gertatzen da.

8.- Gai baten inguruko deliberazioa hasterako bertaratu ez izana, abstentzioaren baliokide izango da, baina bozketaren baina lehen bertaratu bada parte har dezake.

9.- Bozketaren emaitza berdinketa bada, bozketaren berria egingo da. Berdinketa badirau Lehendakariaren botoak erabakiko du.

10.- Botoa pertsonala da eta ez ordezkariak, eta Kontseiluko kideak berak edo bere ordezkariak erabiliko du, Kontseiluko Idazkaritzan onartuta. Orokorrean, botoa publikoa izango da. Kontseiluko kideen gehiengoak hala eskatuko balu, botoa ezkutukoa izango da.

11.- Kontseiluaren osaketa urte bakoitzaren hasieran berriro ahal izango da.

5.- Las sesiones serán convocadas con 15 días naturales de antelación, al igual que las extraordinarias, salvo las que tengan carácter de urgente, que serán convocadas con un plazo de antelación no superior a los 7 días naturales.

6.- En las sesiones del Consejo sólo la representante titular de cada asociación o entidad y, en su caso, la suplente, tendrá derecho a voto.

7.- Los acuerdos del Pleno se adoptarán por mayoría simple y mediante votación ordinaria. El voto puede emitirse en sentido afirmativo o negativo, pudiendo las asistentes con derecho a voto abstenerse de votar. Existe mayoría simple cuando los votos afirmativos son más que los negativos.

8.- La ausencia, una vez iniciada la deliberación de un asunto, equivale a la abstención, aunque si se incorpora antes de la votación podrá participar en ella.

9.- En los casos de votación con resultado de empate se efectuará una nueva votación. Si persistiera el empate decidirá el voto de calidad de la Presidencia.

10.- El voto es personal e indelegable y deberá ser ejercido ya sea por la persona componente o por su suplente debidamente acreditada ante la Secretaría del Consejo. Como regla general el voto será público. El voto será secreto cuando así lo soliciten la mayoría de las personas miembros del Consejo.

11.- La composición del Consejo se podrá actualizar al inicio de cada año.

## 9. ARTIKULUA. LEHENDAKARITZA.

1.- Kontseiluko Lehendakariak kargua Donostiako Alkateak izango du eta funtzio hori emakumeen eta gizonen berdintasun-politiken sustapenez eta garapenez arduratzen den Arloko

## ARTÍCULO 9.- LA PRESIDENCIA.

1.- La Presidencia del Consejo será ostentada por el Alcalde o Alcaldesa de Donostia-San Sebastián, que podrá delegar esta función en la Concejalia responsable del Área encargada del impulso y desarrollo

arduraduna den Zinegotzigoaren esku utz dezake.

2.- Lehendakaritzaren eskuduntzak honakoak dira:

a) Osoko bilkura deitu eta honen buru izan.

b) Parte-hartzea sustatu, eztabaida moderatu, deliberazioak zuzendu, akordioak eta ondorioak lortu, akordioak gauzatu eta bozketa ebatzi berdinketa ematen denean.

c) Kontseiluko kideek proposatzean, hauen izendapen eta kargu-uzteak burutu.

d) Kontseiluko osoko bilkurak erabakitako akordioen berri eman korporazioari.

e) Udaleko Aholku Batzorde ezberdinen arteko koordinazioa sustatu, informazioa trukatu, beharrezkoa denean, neurri eta ekintza bateratuak proposatzeko.

f) Kontseiluaren helburuak betetzen direla eta bertako jarduerak indarrean dagoen araudiaren arabekoak direla egiaztatu.

## 10. ARTIKULUA. LEHENDAKARI ORDETZA.

1.- Lehendakariordetza urtero berretsiko da eta kargua emakumeen elkarrekin bateko ordezkaria den kide batek, gehienez bi urtez, hartuko du. Proposamena elkarrekin egin beharko dute eta Kontseiluko Osoko bilkuraren gehiengoaz onartua izango da.

2.- Lehendakariordetza Lehendakaritzarekin elkarlanean arituko da honen funtzioak bete daitezela, eta Lehendakaritzak eskuordetutako funtzioak beteko ditu.

3.- Lehendakariordetzak Batzorde Iraunkor eta Lan Batzordeen jarduerak koordinatuko ditu.

de políticas para la igualdad de mujeres y hombres.

2.- Son atribuciones de la Presidencia las siguientes:

a) Convocar y presidir el Pleno.

b) Promover la participación, moderar la discusión, dirigir sus deliberaciones, obtener acuerdos y conclusiones, ejecutar sus acuerdos y dirimir las votaciones en caso de empate.

c) Realizar, a propuesta de las componentes del Consejo, los nombramientos y ceses de los miembros del Consejo.

d) Informar a la corporación de los acuerdos adoptados por el pleno del Consejo.

e) Promover la coordinación entre los diferentes Consejos Asesores del Ayuntamiento con el objetivo de intercambiar información y, si se estima necesario, proponer medidas y actuaciones conjuntas.

f) Velar por el cumplimiento de los fines propios del Consejo y de la adecuación de sus actuaciones a lo dispuesto en la normativa vigente.

## ARTÍCULO 10.- LA VICEPRESIDENCIA.

1.- La Vicepresidencia, que debe ser ratificada anualmente, será asumida por un plazo máximo de dos años por una integrante del Consejo que represente a alguna asociación de mujeres. La propuesta debe llegar desde las asociaciones y será acordada en el Pleno del Consejo por mayoría.

2.- La Vicepresidencia colaborará con la Presidencia en el cumplimiento de sus funciones, y ejercerá las funciones que le delegue la Presidencia.

3.- La Vicepresidencia coordinará las actuaciones de la Comisión Permanente y las Comisiones de Trabajo.

## 11. ARTIKULUA. BATZORDE IRAUNKORRA.

- 1.- Batzorde Iraunkorra Osoko bilkuren arteko organo gorena da. Kontseiluko ohizko kudeaketaren eta Osoko bilkura elkartua ez dagoenean Kontseiluko zuzendaritzaren ardura hartuko du.
- 2.- Kontseiluko Batzorde Iraunkorra ondorengoek osatuko dute:
  - Kontseiluko Lehendakariordetzak, Batzorde Iraunkorreko lehendakaritza kargua beteko duenak, iritzia eta botoa emanez.
  - Kontseiluko Osoko bilkurak hautatutako bilkurako sei batzordekide, iritzia eta botoa emanez.
  - Berdintasun Saileko teknikari bat (emakumea), iritzia eta botoa emanez.
  - Kontseiluko Idazkaria edo honek eskuordetutako pertsona, iritzia eta botoa emanez.

## 12. ARTIKULUA. BATZORDE IRAUNKORRAREN FUNTZIOAK.

Batzorde Iraunkorraren funtzioak honakoak dira:

- 1.- Kontseiluko Osoko bilkurari urteko jardura-programa eta honen kudeaketaren memoria aurkeztu.
- 2.- Bileren egutegia eta Osoko bilkuraren gai-zerrenda proposatu.
- 3.- Lan-batzordeen osaera eta koordinazioa.
- 4.- Osoko bilkurak eskatutako txostenak igorri eta honi egokiak iruditzen zaizkion neurri eta ebazpenak proposatu.
- 5.- Premiazkotasuna dela eta, hurrengo Osoko bilkurari itxaron ezin dioten gai guztien ohiz kanpoko azterketa eta

## ARTÍCULO 11.- LA COMISIÓN PERMANENTE.

- 1.- La Comisión Permanente es el máximo órgano entre Plenos. Es el órgano encargado de la gestión ordinaria del Consejo y de asumir la dirección del mismo cuando el Pleno no esté reunido.
- 2.- La Comisión Permanente del Consejo estará formada por:
  - La Vicepresidencia del Consejo, que ejercerá la presidencia de la Comisión Permanente, con voz y voto.
  - Seis vocales integrantes del plenario elegidas por el Pleno del Consejo, con voz y voto.
  - Una representante técnica de la Sección de Igualdad, con voz y sin voto.
  - La Secretaria del Consejo o persona en quien delegue, con voz y sin voto.

## ARTÍCULO 12.- FUNCIONES DE LA COMISIÓN PERMANENTE.

Son funciones de la Comisión Permanente las siguientes:

- 1.- La presentación al Pleno del Consejo del programa anual de actividades y de la memoria correspondiente a su gestión.
- 2.- La propuesta de calendario de reuniones y el orden del día del Pleno.
- 3.- La creación y la coordinación de las Comisiones de Trabajo.
- 4.- La emisión de los informes que le solicite el Pleno y la propuesta al mismo de cuantas medidas y resoluciones estime convenientes.
- 5.- El estudio y la tramitación con carácter excepcional de todas aquellas cuestiones que, por su urgencia, no puedan esperar al

izapidea burutu.

6.- Berdintasun-politika eta urteko jarduera-planaren inguruko gaietan Donostiako Udalarekin elkarlanean aritu, ekimen propioz edo eskumena duten organoek honela eskatzen badute.

7.- Udaleko Sail bakoitzari Kontseiluko osoko bilkurak emakumeen eskubide eta interesen defentsarako beharrezko ikusten dituen proposamen eta gomendioak aurkeztu, berdintasun politiken diziplina anitzeko eta zuzeneko ikuspegitik.

8.- Kontseiluari helarazitako salaketa diskriminatzaileak bildu eta eskumena duten organoen aurrean aurkeztu, betiere horiek berdintasun oinarria urratu edo emakumeak iraintzen badituzte.

9.- Osoko bilkurak esleitu diezazkiokeen funtzioak edo espresuki Kontseiluko beste organoei esleitu ez zaizkienak.

siguiente Pleno.

6.- La colaboración con el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, ya sea a iniciativa propia o cuando así sea requerido por cualquiera de los órganos competentes, en temas relacionados con las políticas de igualdad, así como con el plan anual de actividades.

7.- Plantear a los diferentes departamentos municipales las propuestas o recomendaciones que el pleno del Consejo estime necesarias para la defensa de los derechos e intereses de las mujeres, desde una perspectiva multidisciplinar y transversal de las políticas de igualdad.

8.- Recoger y canalizar ante los órganos competentes las denuncias discriminatorias que sean puestas en conocimiento del Consejo, siempre que éstas contravengan el principio de igualdad o denigren a las mujeres.

9.- Todas aquellas funciones que le fueran atribuidas por el Pleno o que no estén expresamente atribuidas a otros órganos del Consejo.

### 13. ARTIKULUA. IDAZKARITZA.

1.- Idazkaritza Udal Idazkariari edo honek eskuordetutakoari dagokio. Idazkaritza, Kontseiluko administrazio eta teknika-kudeaketa dagozkion organoa da. Idazkaria osoko bilkuretara joango da baina ezingo du botorik eman.

2.- Bere funtzioak honakoak dira:

a) Lehendakaritzak eta Lehendakariordetzak dagozkien gaietan eskatutako laguntza eman.

f) Bileren deialdiak osatu eta bidali.

c) Kontseiluko bilkuren aktak altxatu eta bertan adostutako akordioen ziurtagiriak igorri.

d) Organo ezberdinen kide eta ordezkarien Errolda eguneratua izan, bai eta horien sarrera eta irteerak ere.

### ARTÍCULO 13.- LA SECRETARÍA.

1.- La Secretaría corresponde al Secretario o Secretaria municipal o persona en quien delegue. La Secretaría es el órgano al que compete la gestión administrativa y técnica del Consejo. La Secretaria acudirá a las sesiones plenarias con voz pero sin voto.

2.- Sus funciones son las siguientes:

a) Asistir a la Presidencia y a la Vicepresidencia en cuantos asuntos inherentes le sean requeridos.

b) Confeccionar y enviar las convocatorias de las reuniones.

c) Levantar acta de las sesiones del Consejo y emitir certificaciones de los acuerdos del mismo.

d) Llevar de forma actualizada el Registro de las personas componentes y representantes de los distintos órganos, así como de las

e) Kontseiluak bere esku utzitako funtzioak.

3.- Behin-behineko aktak Kontseiluko kide guztiei igorriko zaizkie eta ospatu behar den hurrengo bilkuran onartuak izan beharko dira.

4.- Behin-betiko aktak publikoak izango dira eta onespena jaso eta 15 egunetik aurrera eskatzen dituenaren esku egongo dira.

#### **14. ARTIKULUA. LAN-BATZORDEAK.**

1.- Lan-Batzordeak Batzorde Iraunkorrak sortutako azterketa- eta lan-organoak dira eta honen menpe daude. Horiek sortzeko akordioa Batzorde Iraunkorraren ekimen propioz edo osoko bilkurako delegatuen heren batek hala eskatuz gero hartu ahal izango da.

2.- Batzordeen helburua txosten edota proposamenak luzatu eta dagozkien helburuekin bat datozen jarduerak antolatzea da.

3.- Lan Batzordeetan Kontseiluko elkarte, entitate, sindikatu eta alderdi politikoei parte hartu ahal izango dute. Nahi izanez gero, udaleko langileak edo landu nahi diren gaien inguruko adituak bertaratzea ere eska dezakete.

4.- Lan Batzordeak landutako ondorio edo proposamenak, lehenik, Batzorde Iraunkorrera igorriko dira eta ondoren, Kontseiluko Osoko bilkurara, hala badagokio, akordioak lor daitezten.

altas y bajas.

e) Aquellas que le sean encomendadas por el Consejo.

3.- Las actas provisionales se remitirán a todas las personas miembros del Consejo y se someterán a aprobación del mismo en la siguiente sesión que se celebre.

4.- Las actas definitivas serán públicas y estarán a disposición de quienes las requieran en un plazo no inferior a quince días naturales después de su aprobación.

#### **ARTÍCULO 14.- LAS COMISIONES DE TRABAJO.**

1.- Las Comisiones de Trabajo son órganos de estudio y trabajo creadas por la Comisión Permanente y dependientes de ésta. El acuerdo de la creación podrá adoptarse por propia iniciativa de la Comisión Permanente o a petición de un tercio de las delegadas del pleno.

2.- Estas Comisiones tienen como objetivo elaborar informes y/o propuestas y organizar las actividades que se consideren convenientes a los fines asignados.

3.- Podrán participar en las Comisiones de Trabajo las representantes de las asociaciones, entidades, sindicatos y partidos políticos componentes del Consejo. En el caso de que resulte de interés se podrá requerir la colaboración de personal municipal o personas expertas en la materia que se pretenda tratar.

4.- Las conclusiones o propuestas elaboradas en las Comisiones de Trabajo se elevarán primeramente a la Comisión Permanente y después al Pleno del Consejo para la adopción, en su caso, de acuerdos.

### **III. TITULUA. KONTSEILUKO KIDE IZATEA EDO IZATEARI UZTEA**

#### **15. ARTIKULUA. SARRERA BERRIAK.**

1.- Berdintasunaren aldeko Emakumeen Donostiako Kontseiluko kide izateko, emakumeen elkarte, entitate eta taldeek Araudi honetako 4.1. a) artikuluan azaldutako baldintzak bete beharko dituzte.

2.- Kontseiluan kide gisa parte hartu nahi duten elkarte, entitate eta kolektiboek beren eskakizuna Lehendakartzara zuzendu beharko dute, beharrezko dokumentazioa atxikiz.

3.- Entitate eskatzaileek, eskaera orriarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztuko dute:

a) Eskaria, ezarritako agiri-ereduan beteta (1. Eranskina).

b) Emakumeen eskubideen ikuspegi eta defentsatik, berdintasunaren sustapenaren inguruko jarduerak garatzen direla frogatzen duen Entitatearen memoria. Honek, hala badagokio, Donostiako Udalarekin batera garatutako jarduerak zehaztu beharko ditu.

c) Egoitza sozialaren, elkartekideen kopuruaren eta zuzendaritza-karguak betetzen dituzten pertsonen izenen ziurtagiria.

d) Aholku Batzordean Elkartearen ordezkari izango den pertsonaren izendapen-akordioa, baita bere ordezkioarena ere. Emandako datuen ondoren egindako edozein aldaketaren berri Aholku Batzordeko Idazkaritzari eman beharko zaio, aldaketak eman eta hurrengo hilabetean.

### **TITULO III.- INCORPORACIÓN Y PÉRDIDA DE LA CONDICIÓN DE COMPONENTE DEL CONSEJO**

#### **ARTÍCULO 15.- NUEVAS INCORPORACIONES.**

1.- Para ser miembro del Consejo de mujeres de Donostia-San Sebastián para la igualdad, las asociaciones, entidades y grupos de mujeres tienen que reunir las condiciones descritas en el artículo 4.1.a) de este Reglamento.

2.- Las asociaciones, entidades y colectivos que pretendan incorporarse al Consejo deberán dirigir su solicitud a la Presidencia, debiendo adjuntar la documentación necesaria.

3.- Las entidades solicitantes deberán adjuntar a la solicitud la siguiente documentación:

a) Instancia cumplimentada conforme al modelo establecido (Anexo1).

b) Memoria de la Entidad que acredite el desarrollo de actividades en relación a la promoción de la igualdad, desde la perspectiva y defensa de los derechos de las mujeres. La memoria deberá especificar, en su caso, las actividades desarrolladas en colaboración o con la participación del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

c) Certificación acreditativa del domicilio social, número de personas asociadas y nombre de las que ocupan los cargos directivos.

d) Acuerdo de nombramiento de la persona representante de la Asociación en el Consejo Asesor, así como del de su suplencia. Cualquier modificación posterior de los datos aportados deberá notificarse a la Secretaría del Consejo Asesor, dentro del mes siguiente a la fecha en que se produzcan.

## 16. ARTIKULUA. KONTSEILUKO KIDE IZATEARI UZTEA.

1.- Kontseiluko kide izateari ondorengo arrazoiengatik utziko zaio:

- a) Ordezkatzen duen elkarte edo entitatea desagitea.
- b) Borondatez uko egitea.
- c) Araudi hau eta Gobernu Organoen akordioak behin eta berriz ez betetzea, edota Kontseiluaren funtzionamendua larriki nahastea.
- d) Kontseiluaren helburu eta oinarrien aurkakoak diren jarduera, jarrera edo adierazpenak burutzea.

2.- Etete hau Kontseiluko Osoko bilkurak adostuko du, Batzorde Iraunkorrak proposatuta eta elkarte, sindikatu, alderdi politiko edo eragindako pertsonari audientzia eman ondoren.

3.- Kontseiluko kide izateari uzteak berriz bertara itzultzeko aukera irekia uzten du, kontseilua uzteko arrazoiak desagertzen direnean.

4.- Kideetako bat Kontseiluko bi bilkuratara jarraian edo hirutara ez-jarraian bertaratzen ez bada, ez bertaratzea arrazoitu ez bada, indarrean dagoen ekitaldian baja emango zaio, hurrengo urtean berriz itzultzeko aukera izango duelarik. Bere bajaren akordioa Kontseiluak adostuko du gehiengo soilaren bitartez.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honen guztizko edo zatikako aldaketa eta bere indargabetzea Udalbatzaren esku dago, Udalaren Toki Gobernu Batzordeak proposatuta eta Berdintasunaren aldeko Emakumeen Donostiako Kontseiluari aurretik kontsultatua.

## ARTÍCULO 16.- PÉRDIDA DE LA CONDICIÓN DE INTEGRANTE DEL CONSEJO.

1.- Se perderá la condición de integrante del Consejo por las siguientes causas:

- a) Disolución de la asociación o entidad a la que representa.
- b) Voluntad propia.
- c) Incumplimiento reiterado del presente Reglamento, los acuerdos de los Organos de Gobierno y/o la perturbación grave del funcionamiento del Consejo.
- d) Realización de actividades, conductas o manifestaciones contrarias a los principios y objetivos del Consejo.

2.- Dicha pérdida será acordada por el Pleno del Consejo, a propuesta de la Comisión Permanente, tras haber dado audiencia a la asociación, sindicato, grupo político o persona física afectada.

3.- El cese como persona componente del Consejo no impide la posible reincorporación al mismo, una vez desaparecidas las causas que lo motivaron.

4.- La ausencia, sin haber excusado la asistencia, a dos sesiones seguidas o a tres no consecutivas del Consejo por parte de las integrantes podrá provocar su baja durante el ejercicio vigente, sin perjuicio de que pueda incorporarse al del año siguiente. El acuerdo de su baja será tomado por el Consejo por mayoría simple.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL

La modificación total o parcial del presente Reglamento, así como su derogación, corresponde al Pleno Municipal, a propuesta de la Junta de Gobierno Local, previa consulta al Consejo de Mujeres de Donostia-San Sebastián por la Igualdad.

Las dudas que suscite la interpretación y

Berdintasun eta Lankidetzeta Atala  
Sección de Igualdad y Cooperación

Ijentea, 6 - Tel. 943481413 - 943481471 - Faxa 943481843 - [www.donostia.org](http://www.donostia.org)  
20003 Donostia-San Sebastián

Araudi honen interpretazio eta aplikazioek sor ditzaketen zalantzak eskumena duen Udal Organoak argituko ditu, indarrean dagoen araudiaren barnean betiere.

### **AZKEN XEDAPENA**

Araudi hau, GAOn behin betikoz argitaratzean jarriko da indarrean.

-----

aplicación de este Reglamento serán resueltas por el Órgano Municipal competente, siempre de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

### **DISPOSICIÓN FINAL**

El presente Reglamento entrará en vigor a partir de su publicación definitiva en el BOG.

-----